




EUSKAL CURRICULUMA

Aurkezpen eta herriratze ekitaldia

Ekainaren 21ean, Donostiako Kurtsaalean, goizeko 11etan

- Euskal curriculuma emaitza jakin batzuk lortu nahi dituen planteamendu pedagogikoa da. Curriculumak ikasle jakin batzuei zer eta nola irakatsi behar zaien zehazten du. **Funtsean, etorkizuneko herritarra, jendartea nolako nahi dugun izatea irudikatzen du.** Izan ere, Euskal Curriculumaren oinarrian honako galdera hauek daude: Zer nolako pertsonak hezi nahi ditugu Euskal Herrian? Zer nolako jendartea sortu nahi dugu etorkizunera begira?
- Ekainaren 21ean, **historian lehen aldiz herri honek curriculum propioa** osatu duela adieraziko da, hau da, **Euskal Herriaren eta Euskal Herrirako marko pedagogiko komuna** plazaratzea izango da helburua.
- Bost urte hauetan parte hartu duten norbanako, eskola/ikastola eta eragileak lehen lerroan kokatu behar ditugu, jakinik, **atzean herri oso bat duen proiektua** dela. Testuinguru honetan aurkezpena eta herriratze ekitaldia talde Sustatzailearen esku izango da, Curriculuma osatzen lagundu duten lagunen esku.
- **Euskal Curriculuma Euskal Herriaren eraikuntza eta garapenerako ezinbesteko tresna** dugu. Herri bezala garatzeko, Euskal Herriaren iragana, gaur eguna eta etorkizuna, gure herriaren ikuspegitik ikasi eta irakastea ezinbestekoa da.
- **Hezkuntza Sistema Nazionala eraikitze bidean curriculum propioa izatea oinarrizko osagaia** dugu.



Kurtsaala jendez lepo beteko dugu!

<http://www.labsindikatu.org/sectoreak/irakaskuntza/publika>

Araban	Bizkaian	Gipuzkoan	Nafarroan	Iparaldean
Fermin Lasuen, 13 behea 01001 Gasteiz Telf.: 945 259 544 Faxa.: 945 258 039 irakaskuntzaaraba@ labsindikatu.org	Rekalde zumarkalea, 62 behea 48010 Bilbo Telf.: 944 706 900 Faxa.: 944 706 909 irakaskuntzabizkaia@ labsindikatu.org	San Bladi 1, behea 20013 Donostia Telf.: 943 458 562 Faxa.: 943 456 645 irakaskuntzagipuzkoa@ labsindikatu.org	Martelo Zelaieta 75, 2-A 31014 Iruñea Telf.: 948 382 474 Faxa.: 948 221 276 irakaskuntzanafarroa@ labsindikatu.org	7 Coursic Karrika 64100 Baiona Telf.: 0559595020 Faxa.: 0559595021 baiona@ labsindikatu.org